



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan?”

2023ko uztailaren 23a  
Urteko 16. igandea (A)

### Mateo 13, 24-43.

Beste parabola bat proposatu zien Jesusek: “Jainkoaren erregetzarekin, gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. Etxeko denak lo zeudela, etsaiak soroan sartu eta gari artean olo gaiztoa erein zuen eta alde egin. Garia hazi eta burutu zenean, olo gaiztoa ere agertu zen. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiari esatera: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik du, bada, olo gaiztoa?”

Hark erantzun zien: ‘Etsaiaren lana da hori’.

Eta morroiek: ‘Joango al gara olo gaiztoa biltzera?’

Baina nagusiak: ‘Ez, ez dadila gerta olo gaiztoa biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uzta-aroa iritsi bitartean; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehenik olo gaiztoa, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora’.

Ez, ez dadila gerta olo gaiztoa biltzean garia ere ateratzea.

## LEGAMIA GISA

*José Antonio Pagola*

Egundoko ausardiaz, jende guztia harritarazi zuen Jesusek Israelgo profeta bakar bat ere esatera ausartu ez zen hau aldarrikatuz: «Hemen da Jainkoa jada, bere zuzentasun-indar kreatzaileaz munduan bidea urratuz, bere seme-alaben bizitza gizatarrago eta zoriontsuago egiteko». Kanbiatu beharra dugu. Ikasi beharra dugu Berri On honetan sinetsiz bizitzen: etorri dator Jainkoaren erreinua.

Gogo biziz mintzo ohi zen Jesus. Asko sentitzen ziren hitz haiek erakarriak. Beste askok dudak zituen. Ez ote hura guztia zorakeria hutsa? Non ikus zitekeen Jainkoaren indarra mundua eraldatzen? Zeinek kanbia zezakeen Erromaren inperio boteretsu hura?

Behin batean parabola labur-labur bat kontatu zuen Jesusek. Hain laburra eta apala da, non oharkabeko gertatu baitzaie kristauei. Hona zen dioen: «**Jainkoaren erreinuarekin, andre batek hartu zuen legamiarekin bezala gertatzen da: hiru neurriko irinetan ezkutatu zuen, dena harrotua gertatu zen arte**».

Jende xume hark bazekin zertaz mintzo zitzaion Jesus. Guztiek ikusi zuten ama etxe-atarian ogia egiten. Bazekiten legamia «ezkutatua» gelditzen dela, baina ez eraginik gabe. Era isilean eta ezkutuan dena harrotuz joan ohi da, barrutik. Horrela ari da Jainkoa ere, bizitzaren barnetik.

Jainkoak ez du ezer ezartzen kanpotik, baizik eta barnetik eraldatzen du pertsona. Ez du dominatzen inor bere botereaz, baizik eta maitasunez erakartzen du ongirantz. Ez du bortxatzen inoren askatasuna, baizik eta bere burua eskaintzen du gure bizitza zoriontsuago egiteko. Horrela jardun behar dugu geuk ere, haren erreinuari bidea ireki nahi badiogu. Aldi berria ari da sortzen Elizarentzat. Kristauek ikasi beharra izango dugu gutxiengo bezala bizitzen, gizarte sekularizatu eta anitz batean. Leku askotan, kristautasunaren geroa, hein handian, honen baitan egongo da: fededunen talde txikiak sortu ala ez, ebanjelioak erakarriak eta Jesusen inguruan elkartuak.

Pixkana, fedea apal-apal bizitzen ikasiko dugu, zaratarik atera gabe eta ikuskari handirik gabe. Jada ez dugu landuko hainbesteko botere- eta ospe-gurarik. Ez ditugu galduko geure indarrak irudi arranditsuak eskaintzen. Funtsezkoaren bila jardungo dugu. Jesusen egian ibiliko gara.

Jesusen gogoari jarraituz, bizitza sanoaren «legamia» gisa bizitzen saiatuko gara gizartean, eta apalki urtzen den «gatz» apur bat gisa, bizitza modernoari gustu ebanjelikoa emateko. Geure inguruan Jesusen biziera kutsatuko dugu eta Ebanjelioaren indar inspiratzailea eta eraldatzailea hedatuko dugu. On eginez biziko gara. Jesus bezala.